

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ETA IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SA SOZIETATEAREN ARTEKO HARREMANEN ARAUDIA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta egin aurretik, lehenago aipatu den araudia aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

- 1.- Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2022ko urriaren 20an egin zuen saioan hartutako akordioa betetzea (Ondasunak atxikitzea eta Iruñerriko Zerbitzuak SA erakunde edo ente instrumentaltzat deklaratzeko).
- 2.- Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren aurrean errekurtsioa aurkezteko daitezkeen gaiak argitzea, harremanen araudiaren 4. artikulua arabera, Nafarroako Administrazio Auzitegiak gai honetan emandako ebazpenen ondorioz.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

- 1.- Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2022ko urriaren 20an egin zuen saioan hartutako akordioak eskatzen die Mankomunitateko zerbitzu teknikoei Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatearen arteko harremanen araudia aldatzeko proposamena egiteko, hartara, garbi gelditzeko Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateak dituen betebeharrak Mankomunitatearen baliabide tekniko moduan. Edonola ere, betebeharrak horiek Mankomunitatearen ildoan pean beteko dira.
- 2.- Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako zenbait ebazpenek zehaztu dute zein kasutan diren onargarriak auzitegi horren aurrean Lehendakariaren ebazpenen kontra aurkeztutako errekurtsioak, IZSaren langileen deialdien aurrean araudiaren 4. artikulua arabera aurkeztutako errekurtsioak ebazten zituztenak. Hain zuzen, adierazi dute kanpoko deialdiak direnean eskumena administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari dagokiola, eta barneko deialdiak direnean, lan-arloko jurisdikzioari dagokiola. Lehendakariaren aurrean aurkeztutako errekurtsioen xedea, 4. artikuluan araututakoena, da herritarren sarbidea ahalbidetzea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean eta administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean gora jotzeko errekurtsioak aurkeztera. Nafarroako Administrazio Auzitegia aginpiderik

gabe deklaratu denez IZSaren barneko deialdien aurkako errekurtsuekin lotuta, segurtasun juridikoa eta argitasuna edukitze aldera, artikuluko hori aldatu behar dela uste da, hartara, araudiara eramateko Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenetan agindutakoa.

3.- Aldaketa txikiak, egokitzapenak eta beharrezkoak diren zuzenketa indarrean dagoen araudiarekiko (39/2015 Legea, 40/2015 Legea...).

c) Arauaren helburuak.

1.- Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2022ko urriaren 20an egin zuen saioan hartu zuen akordioa betetzea.

2.- Argitzea eta segurtasun juridikoa ematea Harremanen araudiaren 4. artikuluan araututa dagoen errekurtsuari dagokionez.

3.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik ez-erregulatzailerik.

Ez dira planteatzen.

e) Herri-kontsultaren hartzaileak:

Iruñerriko herritar guztiak.